

### **Batasun zibilen erroldari buruzko araudia**

#### PASAIAKO UDALA

##### Iragarkia

Pasaiako Udal Osoko Bilkurak, 1999ko irailaren 27an burutako bilkuran, hasiera batean Pasaiako Ezkontza Zibilen Udal Erregistroa Erregulatzeko Arautegia onartu zuen eta alegaziorik ez dagonez, Toki Erregimeneko Oinarriak arazten dituen Legearen 70 artikuluko 2. Zenbakiak dioena betez, horren testu osoa argitarazten da.

Ebazpen honek amaiera ematen dio bide administratiboari eta honen aurka dagokion errekurtsa tartekatu ahal izango da Euskal Herriko Justiziaren Auzitegi Gorenaren Liskar Auzi Administratiboaren Aretorearen aurrean, Liskar Auzi Administratiboaren Jurisdikzioaren Arautzailea den uztailearen 13ko 2971998 Legearen arabera, honen berri eman eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epe barruan.

Hala nahi izanik, Erregimen Lokalaren Oinarriko Legearen 52.1 artikulua diotenaren arabera interesatuak erreposizio errekurtsa jarri ahal izango du organo honen aurrean honen notifikazioa jaso eta kontaktzen hasita hilabeteko epea barruan, beste hilabete baten barraun erabaki beharko delarik, honen amaiera, erabaki ez balego, errekurtsa gaitzetsizat emango delarik liskar-auzi administratiboa irekia geratuz.

Interesatuak halaber tartekatu ahal izango du interesgarriztat joko duen beste edozein Errekurtsu ere.

Pasaia, 2000 maiatzaren 10a.—Joan Karlos Alduntzin Juanena, Alkatea.

(784) (5016)

Ezkonduraren Gabeko Bikoteen Udalerriko Erregistroko Araudia.

#### SARRERA

Gure antolamendu juridiko eta sozialaren funtsezko oinarriak izanik nortasunaren garapenerako askatasuna eta legearen aurrean guztiok dugun berdintasuna, behartuta daude botere publiko guztiak hiritarren eta horiek osatzen dituzte taldeen askatasun eta berdintasun horiek benetakoak eta eraginkorrak izan daitezkeen beharrezko diren baldintzak ezartzera, haien eragozle liratekeen oztopoak baztertuz (Espainiako konstituzioaren 1.1,9,2,10,1 eta 14 art.).

Edozein gizon-emakumek du eskubidea, bere buruaren jabe izanik, elkarketa afektibo eta egonkor baten bidez bizitza komunitate bat eratzeke, seme alabez osatu nahiz ez, familia baten sorrera baitakar, eta horri babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa eman behar diote botere publikoek (Konstituzioaren 39.1 art.)

Ezkontza dugu elkarketa afektibo egonkor horrek historian zehar hartu izan duen erakunde-forma, baina gaur egun elkarbizitza-modu oso desberdinak ditugu, eta bikote ugari dira beren bizitza-komunitate iraunkorra ezkondu gabe eratzea, ezkondu gabe familia sortzea erabakitzen duten edo horretara behartuta dauden bikoteak. Ez dago, ordea, horien arteko harremanak giza-kalitate edo kalitate sozial gutxiagotzat zertan jo, ez eta balio juridiko gutxiagotzat guraso gisa seme-alabekiko dituzten betekizunak ere.

Bikote horiek ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak eta bertatik sortzen diren familiek, ezkontzaren bidez elkartutakoek eta beren familiek jasotzen duten babes sozial, ekonomikoa eta juridikoa berbera jaso behar dute. Horrela bermatuko baitira hiritar guztiak duten lehen aipaturako oinarriko printzipioak nortasunaren garapenerako eta berdintasunerako eskubideen errespetua eta sustapena.

Konstituzioak damaigun babes hori, oinarri berberak aintzat hartuta, sexu berekoek osatutako elkarketa egonkor eta afektiboek ere eskaini behar zaie, berezko joera sexualak sexu bereko beste pertsona batekin bizitzera daramatzan pertsona horiek orain arte baztertzera eta kriminalizatzerara bultzatu izan duten zentzurik gabeko gaizki-ikusteak gainditu ondoren, gure antolamendu juridikoak egoera hori ezertarako ere aintzat hartu ez badu ere.

Ezkontzaz besteko elkarketen errealitate horrekiko erantzun legala eta judiziala uzkurra izan ohi da, dudatsua, zatikakoa, osotasunik gabea, zenbaitetan kontraesanez jantzia, eta horrek berarekin dakar zenbait herritar babes juridikorik gabeko egoeran aurkitzea, injustizia larrien mende, esparru zibilean, administratiboan, fiskalean, sozialean nahiz penalean.

Konstituzioak eskatzen duen berdintasunaren eta askatasunaren erantzule botere publiko guztiak dira, eta, horrenbestez, bidezko lege-xedapenak ematen ez diren bitartean, aplikazio analogikoaren edo gure garaiko errealitate sozialarekin bat datorren interpretazio juridikoaren kalterik gabe (Kode Zibileko 3. eta 4. art.), bidezko dirudi, udal administrazioaren esparru mugatuan bada ere, berdintasuna bultza eta ezkontzaz besteko elkarketen bidez eratutako familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko duen baliabide juridikoa eskaintzea.

1. artikulua. Erregistroaren helburua eta izaera.

Pasaiaiko Udalak Ezkondu Gabe Bizi Diren Bikoteen Udal Erregistroa sortu du. Izaera administratiboa izango du eta erregistro horretan ezkontzaz kanpo Arautegi honetan ezarritako moduan eta baldintzetan elkarrekin bizitzea askatasunean erabaki duten bikoteek (sexu desberdinekoak nahiz sexu berekoak) eman lezakete euren izena.

2. artikulua. Inskribatzeko betebeharrak.

Bikotearen lehen inskripzioa egiteko, biek batera «Ezkondu gabe bizi diren bikoteen udal erregistroa»z arduratzen den funtzionariaren aurrean agertu eta ezkondu gabe elkarrekin bizitzeko erabakia hartua dutela aitortu beharko dute. Inskripzioa eta deklarazioa egiteko arauzko ereduak erabiliko da.

Inskripzioa egiteko baldintza hauek bete behar dituzte bikotekideek:

Ohizko egoiliar modura Pasaian erroldatuta egon behar dute.

Adinez nagusiak edo emantzipatuak izateaz gainera hartarako gauza izan behar dute eta era berean, ez dute odolkidetasunezko ahaidetasunik izango edo linea zuzeneko adopziozkoa edo alboko bigarren mailako ahaidetasunik.

Funtzionario publikoak argi ikus ditzakeen akats edo gaixotasun psikikorik ez izatea. Horrelakoetan, elkarrekin bizi nahi duen bikotea inskribatu ahal izateko medikuaren diktamena aurkeztu beharko dute. Diktamenean medikuak adierazi beharko du zer nolako gaitasuna duen afektatuak bikote modura bere kidearekin ezkontzaz kanpo elkarrekin bizitzeko.

Ez bata eta ez bestea ezkontzeko ez-gai deklaraturik ez egotea.

3. artikulua. Inskribatuak izan daitezke datuak eta dokumentuak. elkarrekiko edo bakarkako azalpena.

Inskripzioaren hasierako idazpen horretan euren elkarketari buruz nahi duten guztia adieraz dezakete. Era berean, elkarrekin izango dituzten harreman pertsonalak eta ondare mailakoak arautzeko hitzarmenak jaso ahal izango dira hitzez hitz.

Aurreko pasarte horretan esandakoak inskribatu ahal izango dira beste momenturen batean, baldin eta biak batera agertzen badira.

Era berean, elkarketaren deuseztapenak konstarazi ahal izango dira. Horretarako nahikoa izango da kide batek hala adieraztea.

4. artikulua. Erregistroaren arduraduna.

Erregistroaren ardura Udal Idazkari Nagusiaren mende egongo da.

5. artikulua. Erregistroko liburu nagusia.

Erregistroak Liburu Nagusia izango du eta hor egingo dira aurreko artikuluetan esandako inskripzioak. Liburu horrek orri mugikorak izango ditu, zenbakiz jantziak eta zigiluztatuak. Hasierako eta amaierako diligentziak izando ditu.

6. artikulua. 1. Inskripzioa eta ondorengo idazpenak.

Bikotearen aurreneko inskripzioa oinarrizko inskripzioa izango da, eta inskripzio orriaren albo batean, gerora elkarketa horren inguruan egin daitezkeen idazpen guztiak idatziko dira.

7. artikulua. Erregistroko liburu osagarria.

Erregistroak liburu osagarri bat izango du, izena eman dutenen abizenaren lehenengo hizkiaren arabera sailkatuta. Bertan, Liburu Nagusian bikoteari buruz dauden aipuak dakartzan orrialdearen zenbakia idatziko da.

8. artikulua. Inskribatutako datuen babesa.

Udal Erregistro horretan azaltzen direnen intimitatea zaintzeko, eurena eta familiarena, sekula ez da publizitaterik egingo han idatzitakoari buruz eta liburu horren erabilera erregistro arduradunak ziurtagiriak emate hutsera mugatuko da. Ziurtagiriak bikoteak berak eskatuko ditu edo Justiziako Epaile edo Auzitegiek.

9. artikulua. Iraunaldia.

Erregistro hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.